

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

19. zenbakia

Data 2001-01-26

1447 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Bide publikoan egiturak, aldamiok eta obrarako beste tresneria jartzeko ordenantza berria. Haserako onspena eta jende aurreko erakusketa.

DONOSTIAKO UDALA

Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako Administrazio Bulegoa

Iragarkia

Donostiako udalbatzarrak, 2000ko abenduaren 4an egindako bilkuran, onako erabaki hau artu zuen:

«Donostiako Udalak honako erabaki hau hartu zuen 2000ko ekainaren 13an:

«1. Hasierako onarpena ematea «Egiturak, aldamiok nahiz obrak egiteko beste edozein lagungarri kalean jartzeko udal ordenantza»ri. (Ordenantzaren testua honekin batera doa).

2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea ordenantzari hasierako onarpena eman zaiolakoa.

3. Irekitzea ordenantza jendaurrera aterata edukitzeko epea, edozein interesatuk aukera izan dezan ordenantzaren gainean dituen iradokizunak nahiz erreklamazioak egiteko hasierako onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo 30 egunetan.

4. Behin betiko onartutzat jotzea ordenantza baldin eta jendaurrera aterata edukitako denboran inork ere ez badu ezeren iradokizun edo erreklamaziorik aurkezten».

2000ko irailaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki hori (171. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala), hirugarren puntuan jendaurrera ateratzeaz esaten dena betetzeko.

2000ko urriaren 13an amaitu zen erreklamazioak aurkezteko epea. ELA eta LAB sindikatuek idazki bana aurkeztu zuten Udal Erregistro Nagusian, bata irailaren 21ean eta besteak irailaren 27an. Haietan, proiektuko 14.7 puntua aipatzen zen, hau da, kalean jarri beharreko obra txabolei buruzko lege araubidea ezartzen duena: Horrelako txabolak jartzea debekatzen da puntu horretan, urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretua oinarri hartuta (obretako lantokietan, lokalen barruan eta kanpoaldean, segurtasun eta osasunari lotuta bete beharreko gutxienezko xedapenak ezartzen ditu dekretu horrek eta han ezarritakoa eraikinak birgaitzeko lanei ere badagokie). Bi sindikatu horien ustetan, udal ordenantzan jaso beharreko kontua da; izan ere, eragina du langileen zerbitzu higienikoen gainean eta, horrenbestez, beren lan eskubideetan.

Ildo beretik, OSALANi egindako galdera bat aurkeztu zuten idazkiokin batera eta, baita ere, teknikoak emandako txostena, honela dioena: «fatxadak birgaitzeko lanetan aritzen diren langileek aldagela egokiak izan behar dituzte eskura, bai eta, jarduera edo osasun baldintzak direla eta beharrezkoa denean, dutxa egoki eta nahikoak ere».

Txostena ikusita, Bide Publikoetako Zerbitzuko buruak kontrako txostena egin du aurkeztutako alegazioen inguruan, bere ustez ez baita inola ere urratzen Errege Dekretua udal arau horretan.

Baieztapen hori zuzena da. Izan ere, urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretuak (256. *Estatuko Aldizkari Ofiziala*, urriaren 25ekoa) IV. eranskineko 15. puntuan xedatzen duenez, langileek lanerako arropa berezia jantzi behar dutenean aldagela egokiak izan beharko dituzte eskura, eta hori obra kontratisten, azpi kontratisten eta bere gain lan egiten dutenen betebeharra da, 11. artikuluko c) atalean ezarritakoarekin bat.

Baina estatuko legeak ez du inola ere esaten betebeharrak hori betetzeko kontratistak txabolak kalean jartzeko baimena eskatu eta Udalak eman behar dionik. Aitzitik, enpresariak beren bitarteko eta eskura dituzten baliabideen bitartez bete beharko dute obligazio hori, eta ez da ezinbestez kalea okupatu beharrik izango. Hartara, horrelako baimenik eman ezean, arauan jasotako kasuan bezala, araua bete behar duenak –gizakia zein zuzenbide izakia– bilatu beharko du legeak ezartzen dizkieten betebeharrak bere baliabideekin betetzeko modua eta, horretarako, lokal pribatuak alokatu edo lagapenean hartu beharko ditu, kontuan izanda birgaitze lanak eraikin pribatuetan egin ohi direla eta, hortaz, Errege Dekretua bete daitekeela kalea okupatu gabe.

Nolanahi ere, eta orain arte azaldu dugunarekin bat etorritz, araudi honek, ordenantzako 1. eta 2. artikuluen arabera, egiturak, aldamioak nahiz obrak egiteko beste edozein lagungarri arautzen ditu eta kalean jartzeko baldintza batzuk ezartzen dizkie, arriskuak eta kalteak saiheste aldera, baina horrek ez ditu barruan hartzen aldagelak edo obrako txabolak.

Hori dela eta, bi sindikatuek egindako alegazioak gaitzetsi egin behar dira eta Udalbatzarrak 2000ko ekainaren 13an behin behingoz onartutako ordenantzaren testua behin betiko onetsi (2000ko irailaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean).

Beraz, hogeita hamar eguneko epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak gaitzesteko ebazpena hartuko da eta Udalbatzarrak behin betiko onespena emango du. Horrela, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzekoak, 49. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Orain arte azalduetako guztiarengatik, irizpen hau sinatzen duen funtzionarioak Gobernu Batzordeak gaia aztertu eta gero honako Erabaki hau hartzea proposatzen dio Udalbatzarrari:

1. LAB eta ELA sindikatuek, 2000ko irailaren 21ean eta 27an, hau da, herritarrei alegazio eta iradokizunak egiteko emandako hogeita hamar eguneko epearen barruan, aurkezturiko idazkietan jasotako alegazioak gaitzestea.

2. Egiturak, aldamioak nahiz obrak egiteko beste edozein lagungarri kalean jartzeko udal ordenantza behin betiko onartzea. Udalbatzarrak 2000ko ekainaren 13an onartu zuen behin behingoz ordenantza hori eta 2000ko irailaren 8an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3. Ordenantza behin betiko onartu dela aditzera ematen duen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agindua ematea».

Donostia, 2001eko urtarrilaren 10a.—J. Ortiz de Zárate, Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako Zuzendaria.

(16) (520)

EGITURAK, ALDAMIOAK ETA OBRAKO BESTELAKO LAGUNGARRIAK KALEAN
JARTZEKO

ARAUDIAREN PROIEKTUA DONOSTIAKO UDALA

I. ATALBURUA.ARAU OROKORRAK

1. art. Xedea.

Obrak egiteko bitarteko lagungarriak kalean jartzeko bete beharreko arauak ezartzea eta hiriko eraikinetako fatxadetan, estalkietan eta solairuetan egiten diren lanetan hartu beharreko neurri babesgarriak finkatzea da araudi honen xedea. Horrekin, obretako langileek eta, batez ere, oinezkoek eta ibilgailuetan dabiltzanek inolako kalterik jasaten ez dutela ziurtatu nahi da, bai eta bide publikoak eta hiri altzariak ahalik eta hobekien zaindu ere.

2. art. Ezarpen eremua.

Enpresa pribatuek eraikinak eraitsi, konpondu, zaharberritu, itxi, birgaitu eta eraikitzeke eta kalean obra zibilak egiteko Donostiako udalerriko kaleetan jartzen dituzten egitura, aldamio eta beste lagungarri batzuek arau hauek bete behar dituzte.

3. art. Gai orokorrak.

Fatxada bide publikoaren ondoan duen eraikin bat bota nahiz eraikitzeke, arau hauetan jasotakoa bete beharko da eta arriskuen kontra babesteko neurriak hartu. Gauza bera, estalkietan egin beharreko lanei dagokienez eta, oro har, gauzak kalera erortzeko arriskua dagoen bestelako lanetan.

II. ATALBURUA.KALEAN JARTZEN DIREN ELEMENTUEI BURUZKO ARAUBIDEA

4. art.Tutu moduko aldamioak kalean jartzea.

4.1. Aldamioaren bermeak.

Aldamioa espaloia ganean zuinkatzean, kuxteta edo erregistroen estalkiak libre utziko dira edo, bestela, neurri tekniko egokiak hartuko.

Aldamioak kalean bermatzeko, habetzan egokiak, oinarriplakak eta nibelaziotresnak erabili behar dira. Habetzanak guxienez 5 cmko lodiera duen egur trinkozkoak izango dira edo, bestela, antzeko erresistentzia duen geruza askotako gai batez eginak. Ezin izango da, inola ere, egurrezko aglomeratua erabili. Habetzanak, gehienez ere, oinarriplaka baino 5 cm handiagoak izango dira (1. irudia). Nibelaziotresnetako hegalek sistema kulunkari bat izango dute, aldamioa jarri eta nibelatu ondoren tresnok zutik jarri ahal izateko, oinezkoek istripurik izan ez dezaten. Hala egiterik ez badago, oinezkoak datozen norabide berean ezarriko dira eta azal barrubiguna jarriko zaie.

Aldamioa markesina, balkoi, hegalkin, teilatu edo antzeko zerbaiten ganean jartzen bada, beharrezko apeoak egingo dira, teknikari eskudunak esandakoari jarraiki.

4.2. Oinezkoen pasaguneak.

Hala egitea posible den kasu guztietan, aldamioaren beheko partea erabat itxiko da, gutxienez 2 m-raino, metalez zein egur trinko egoera onekoz egindako hesi batez. Egurrean zerrenda bertikal zuri eta urdinak pintatuko dira. Oinezkoek gutxienez 1,50 mko zabalera duen alboko pasagune batetik joan beharko dute, galtzadan inola ere sartu gabe. Galtzada ez okupatzea guztiz ezinezkoa denean – zirkunstantzia hori berariaz egiaztatu beharko da–, 1 mko altuerako horma bat jarriko da, gutxienez 7 cmko lodierako adreiluzko edo blokezko fabrikaz eginda (2.a, 2.b eta 2.c irudiak), pasagunea trafikotik babesteko.

Oinezkoak alboko pasagune batetik pasaraztea ezinezkoa denean, aldamio azpitik pasatuko dira, baina, horretarako, gutxienez 1,50 mko zabalera eta 2,10 mko altuera dituen korridore bat utzi beharko da. Salbuespen gisa, eta beharrezko baimena eskuratuz gero, zabalera gutxiagoko pasaguneak jarri ahal izango dira, baina inoiz ez 1,10 m baino gutxiagokoak. Bi barra jarriko dira lurretik 0,450,50 eta 0,901,00 mra, aldamioaren kanpoko hankak luzeran lotzeko, oinezkoen pasabidearen albo hau trafikotik bereizteko hormatxo batek babesten duenean izan ezik. Komeni da barrak 20 cmko luzerako zerrenda islatzaileez seinaleztatzea, aldamioen koloreekin kontrastea egiten duten koloreak erabilita (3.a eta 3.b irudiak).

Aldamioaren eta fatxadaren arteko tartea 0,60 m baino gutxiagokoa bada, oinezkoek aldamioaren azpiko bide nagusitik joan behar izango dute eta, kasu horretan, bi barra jarriko dira aldamioen hasieran eta bukaeran, aldamioaren hanka fatxadari lotzeko. Barra horiek nahitaez eraman behar dituzte lehen aipatutako 20 cmko zerrenda islatzaileak (4a, 4b eta 4c irudiak).

Espaloiaaren zintarria oinezkoen pasabidearen barruan egonez gero, egur trinkozko plataforma bat jarriko da espaloiaaren parean desnibela kentzeko. Kontuan izan beharko da areketako ura husteko beharra (3.b irudia).

Batzuetan oinezkoek aldamio azpiko pasabidearen albo batetik atera behar dute galtzadako oinezkoentzako pasabide batera, autobus geraleku batera, e.a. jotzeko. Horrelakoetan, irtenbide horietan ezin izango da kanpora ateratzen den edo esekita dagoen ezer jarri, 2,10 mtik behera, behintzat. Altuerari buruzko arau hori aldamioaren gainontzeko zatian ere bete behar da, habe paralelo, hegalkinak estaltzeko lagungarri, plataformak zabaltzeko elementu eta abarrei dagokienez.

Atarietako eta dendetakoeta sarbideak ezin izango dira inola ere oztopatu edo itxi.

Ahal dela, erakusleihoak ikusgai utziko dira, estali gabe.

4.3. Markesina babesgarriak.

Aldamio guztietan jarriko dira, oinezkoen gainean ezer eror ez dadin.

Gutxienez espaloitik 3 mra jarriko dira.

Nolanahi ere, galtzadatik bertan jartzen den edozein elementutara 4 mko tartea utziko da, gutxienez, espaloiaaren zintarritik neurtuta (5. irudia).

Oinezkoen pasabidea gutxienez 5 cmko lodiera duen egur trinko egoera onekoz estaliko da. Bisera estaltzeko, kolpeak eta deskonposizioa jasaten dituen material bat erabiliko da, aukeran korrosioaren kontra babestutako txapaz egina. Egurrez egiten bada, antzeko ezaugarriak izan beharko ditu.

Fatxadan egiten diren lanengatik ura erortzeko arriskua dagoenetan, marquesina behar den moduan estali beharko da, iragazkaitza izan dadin eta ura arekaraino eraman ahal izateko.

Markesinaren gainean, ezin izango da makinarik jarri ez eta materialik zein lanabesik pilatu ere.

4.4. Gauzak kalera erortzea.

Tutu moduko aldamio osoa irekiunerik ez duen sare sistema batez batestuta egongo da, kalera material edo tresnarik eror ez dadin.

Sareak fatxadatik urrutien dagoen aldean, alboetan eta objektuak erortzeko arriskua dagoen atzeraemanguneetan jarriko dira.

Amarraduren kalkulua egin bitartean, arreta berezia jarriko da sarearen koadrikulan.

Aldamioaren lan plataformen gainean, ezin izango da ez materialik ez tresna astunik metatu.

Lanaldia bukatutakoan, aldamioaren lan plataformen gainean dauden materialak, tresnak, e.a. bilduko dira.

4.5. Amarradurak.

Amarradura aldamioak jasaten dituen zama horizontalak, fatxadarekiko perpendikular nahiz paraleloak, transmititzen dituen elementua da.

Amarradura mota hauek erabil daitezke (6, 7 eta 8. irudiak):

:*Hedatze takoa, torlojo begiduna eta amarratze tutua dituen amarradura.

*Hedatze takoa, torlojo begiduna, amarratze tutua, tiranteroa eta topea dituen amarradura.

*Leihoko amarradura.

*Leihoko amarradura lepokoduna.

*Punteldun amarradura.

*Zutabeko amarradura.

Amarradura bakoitzeko m^2 kopuru hauek onartuko dira, gehienez:

*Sarerik gabeko aldamioa: $24 m^2$.

*Aldamio sareduna: $12 m^2$.

Amarradurak uniformeki jarriko dira fatxadaren gainean, proiektuko planoetan zehaztutako kokalekuetan.

Amarradurak ez dira balkoietako barandetan jarriko.

Aldamioa beti egongo da azken mailan amarratuta muntaga guztietan (marko edo oin bertikalak).

Aldamioen muturretan eta eskailera aldeko bi alboetan, amarradurak eskaileraren bi alboetan jarriko dira, bat altuera-modulu pare bakoitzeko.

Bestelako kalkuluak berariaz egiaztatzen direnean izan ezik, amarradura batek, gehienez ere, 300 kgko zama jasaten duela joko da.

4.6. Aldamioa lurrera lotzea.

Beharrezkoa denean, aldamioa lurrera behar bezala lotuta egongo da.

4.7. Aldamioaren osagaiak.

Lan plataformek, barandek eta eskailerek 1.627/97 EDko IV. eranskineko C zatian ezarritakoa bete beharko dute. «Lokalen kanpoaldean egiten diren obretako lanpostuei buruzko oinarritzko xedapenak» du izen dekretuko atal horrek.

5. art. Plataforma jasotzaile motordunak kalean jartzea.

Plataforma mota hau erabiltzeko nahitaezkoa izango da ziurtatu ahal izatea inolako objekturik ez dela oinezkoen edo ibilgailuen gainean eroriko, horretarako, lanak egiten diren alderditik nahikoa urrun dagoen obratxitura bat jarrita edo arrisku horretatik babesteko beste edozein baliabide erabilita. Traba teknikorik egon ezean, aparkatze aldeetan ere jarri ahal izango da plataforma.

5.1. Hagen bermeak.

Hagak espaloian zuinkatzean, kuxteta edo erregistroetako estalkiak libre utziko dira edo, bestela, beharrezko neurri teknikoak hartuko.

Kalearen mailan, hagak gutxienez metro bateko itxiturahesiarekin egongo dira babestuta, perimetro osoan.

Hagen itxiturahesiaren eta eraikinaren edo espaloi zintarriaren artean, 1,50 mko zabalera alde bat utziko da, oinezkoak handik pasatzeko. Itxituraren eta eraikinaren artean zabalera hori uztea ezinezkoa bada, espaloia zabalera utziko da, baina inoiz ez 1,10 m baino gutxiago (9. irudia).

5.2. Markesina babesgarriak.

Espaloitik 3 metrora, gutxienez, marquesina babesgarri bat jarriko da. 4.3 zatian jasota dauden haren ezaugarriak.

Markesina tutu moduko aldamioren gainean jarriko balitz, aldamiok 4.1 eta 4.2 zatietan jasotakoa bete beharko dute.

Markesinaren gainean ezin izango da ez makinarik jarri ez material zein lanabesik metatu.

5.3. Gauzak kalera erortzea.

Plataformatik egin beharreko lanetan kanpora eror daitezkeen gauzak oinezkoen nahiz ibilgailuen gainean erortzeko inolako arriskurik egon ez dadin, babessistema bat jarriko da (eskatzailak erabakiko du zein: Sareak, pantailak, e.a.).

5.4. Amarradurak.

Plataforma hauek egonkorak izaten dira altuera jakin bateraino, baina, handik aurrera, hagak riostratu behar zaizkio fatxadari

Riostratze horien kopurua, kokapena eta amarraduramota zehatzmehatz azaldu beharko dira.

6. art. Aldamio esekiak kalean jartzea.

Aldamio mota hau erabiltzeko nahitaezkoa izango da ziurtatu ahal izatea inolako objekturik ez dela oinezkoen edo ibilgailuen gainean eroriko, horretarako, lanak egiten diren alderditik nahikoa urrun dagoen obratxitura bat jarrita edo arrisku horretatik babesteko beste edozein baliabide erabilita.

6.1. Markesina babesgarriak.

Markesina babesgarriak jarri behar izanez gero, bai bermeak bai oinezkoen pasabideak 4.1 eta 4.2 zatietan esandakoaren arabera egingo dira.

4.3 zatian bildutako ezaugarriak izango dituzte, baina salbuespen batekin: Aldamio esekiaren plataformen pisua jasateko adinako erresistentzia izan beharko dute (10. irudia).

Markesinaren gainean ezin izango da ez makinarik jarri ez material zein lanabesik pilatu.

6.2. Gauzak kalera erortzea.

Aldamio esekitik egin beharreko lanetan kanpora eror daitezkeen gauzak oinezkoen nahiz ibilgailuen gainean erortzeko inolako arriskurik egon ez dadin, babessistema bat jarriko da (eskatzailak erabakiko du zein: Sareak, pantailak, e.a.).

Arrisku horren kontrako babesa guztiz segurua dela bermatzerik ez badago, ezin izango da aldamio mota hori erabili.

7. art. Materialak jaso eta jaisteko sistemak kalean jartzea.

Estalkietatik, terrazetatik edo barneko solairuetatik ateratako materialak jaso edo jaisteko kalean jarri beharreko aparatuak arautzen dira artikulu honetan.

Ziurtatu beharko da materiala igo zein jaisteko orduan ezinezkoa dela ezein material ibilgailuak zein oinezkoak dabiltzan aldera erortzea.

7.1. Dorre itxurako garabia.

Beharra berariaz egiaztatzen ez bada behintzat, dorregarabia ezin izango da kalean jarri.

Salbuespen gisa, udal zerbitzuek baimena eman dezakete garabi mota hori kalean jartzeko, baina, horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Guxienez 2 mko altuera duen metalez zein egur trinko egoera onekoz eginiko hesi bat jartzea, garabibesoaren eraginaren pean dagoen arlo osoa inguratuz eta obrari lotutako lan guztiak barruan hartuz (are kamioien zama lanak ere). Hesia, egurrezkoa izanez gero, zerrenda bertikal zuri eta urdinez pintatuko da.

b) a) puntuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean, honako baldintzak bete beharko dira:

*Galtzadan aparkatutako kamioiak kargatu eta deskargatzeko maniobrak balizate konoen bidez, metalezko hesien bidez, e.a. seinaleztatuko dira eta abiadura moteltzeko eta, beharrezkoa izanez gero, galtzada estutzen dela adierazteko seinaleak jarriko dira. Zama lanak amaituta, galtzadan jarritako guztia kenduko da, berriro behar izaten den arte.

*Materialak dorregarabiaz igo eta jaistean ezin izango da baliztatutako esparruaren bertikala gainditu, zama balizaturik ez dauden kaleko eremuen gainetik ezin jar daitekeelarik.

*1,50 mko zabalerako oinezkoen pasabide babestutako bat prestatuko da. Zabalera hori ezinezkoa gertatzen bada, 1,10 m artekoa onartuko da, baina ez txikiagorik.

* Kalearen parean, dorregarabiaren perimetroa metalez zein egur trinko egoera onekoz egindako hesi batez babestuko da (egurra zerrenda bertikal zuri eta urdinez pintatuko da). Hesia 2 m garai izango da, gutxienez ere, eta ate bat eta itxitura bat izango ditu. Beti itxita egongo da, obrako langileek erabiltzeko izan ezik. Atea ezin izango da, inola ere, oinezkoen pasabide aldera ireki.

Dorregarabiak behar bezala funtzionatzeko behar diren osagai guztiak hesiaren barruan jarriko dira.

7.2. Zamak igotzekoa.

Kalera materialik eror ez dadin, plataforma sarez erabat babestutako egitura batean jarriko da.

Zamak igotzeko aparatu hagadunak bi kasutan bakarrik erabili ahal izango dira: Sarez estalitako aldamioren barruan daudenean eta kalearen zabalerak segurtasun arloak okupatzeko aukera ematen duenean.

Zamak igotzekoak aparkatze aldean jarriko dira, beste nonbait jarri beharra dagoela berariaz egiaztatzen ez bada, behintzat.

Kalearen parean, zamatzeko aldea metalez zein egur trinko egoera onekoz egindako hesi batez babestuko da (egurra zerrenda bertikal zuri eta urdinez pintatuko da). Hesia 2 m garai izango da, gutxienez ere, eta ate bat eta itxitura bat izango ditu. Beti itxita egongo da, obrako langileek erabiltzeko izan ezik. Atea ezin izango da, inola ere, oinezkoen pasabide aldera ireki.

Motorrak, maniobraarmairu elektrikoak, poleak, kableak eta, oro har, zamak igotzekoak funtzionatzeko behar dituen osagai guztiak hesi barruan kokatuko dira.

Lehen solairuaren mailan, zamak igotzekoaren eta fatxadaren artean, materialak jasotzeko plataforma bat jarriko da, beharrezko erresistentzia duena.

Zamak igotzekoa ixten duen hesiaren eta eraikinaren artean, oinezkoentzako pasabide bat utziko da, 1,50 mko

zabalerakoa gutxienez. Hala egiterik ez badago, pasabidearen zabalera espaloiarena izango da, baina inoiz ez 1,10 m baino gutxiagokoa.

Bermeei, markesina babesgarriari eta sareei dagokienez, 4. artikuluan tutu moduko aldamiuez esandakoa bete beharko da.

Zamak igotzeko kokatuta dagoen egitura eta lan arloa elkarri lotzen dituen zaldain edo plataformak sareak edo bestelako babesgarriak izango ditu alboetan, ezin materialik ez dadin beheko mailetara eror.

Zamak igotzeko aparatua jasaten duen egituraren kanpoko eta alboetako aldeetan sarean jarriz gero, sare horiek fatxadaraino iritsi beharko dute eta ez dute irekidurarik izango. Hala ez bada, beste sistema bat ezarri beharko da, zamak igotzeko aparatuko plataformaren eta zaldainen arteko tartetatik edo beste edozein tokitatik eror daitezkeen materialak bilduko direla ziurtatzeko.

Zamak igotzeko aparatuko plataformak itxitura bat izango du, zama igo eta jaisten denean erortzeko arriskurik ez dagoela bermatzeko.

Kalean ezin izango da, inondik inora, materialik pilatu.

7.3. Materialak jaso edo jaisteko beste baliabide batzuk.

Atal honetan, materialak igo zein jaisteko erabili ohi diren gainontzeko bitartekoak jasotzen dira: Makinatxoak, poleak, giden gaineko jasotzaileak, e.a.

Kasu horietan guztietan, materialak igotzeko alderdi osoa babestuta egongo da, sare eta plataforma sistema baten bidez edo kalera materialik erortzen ez dela ziurtatzeko balio duten bestelako bitartekoen bidez.

Elementu horiek bide publikoan jartzeko, zamak igotzekoari buruzko zatian (7.2) ezarritakoa bete beharko da.

Makinatxoak eta poleak jartzeko erak segurua izan behar du, zama gehiegi izateagatik eror ez daitezen.

Goiko solairuetatik datozen hondakinak bideratzen dituzten hodiak eta zorrotan ere atal honetan jasotzen dira. Egonkorrak direla ziurtatzeko, fatxadari, aldamiolari edo beste edozein puntu sendori lotuta egon behar dute, haien artean gehienez 6 mko tartea duten finkatze euskarrien bidez.

Materialak botatzen direnean, ez da hautsik harrotu behar. Hortaz, materiala ureztatuko da edo materiala jasotzen duen ontzia olana batez estaliko.

Obrahondakinak ontziraino bideratzeko hodiekin egin beharreko iskintxoak egiteko orduan, kontuan izan beharko da ezin dutela oinezkoen aldea hartu. Bestela esan, 2,10 mtik gora egin behar direla.

Edukiontziaekin bat egiten duen zatian desbideratzerik egon ez dadin, aldamioko metalezko modulu bati lotuta joan beharko du.

Kalean edukiontziak jartzeko, araudi honetako 8. artikulua bete beharko da.

8. art. Edukiontziak kalean jartzea.

«Donostiako udalerriko kaleetan edukiontziak jartzeko arauak biltzen dituen udal ordenantza»n ageri diren baldintza guztiak bete beharko dira (araudi honetako 7. eranskinean daude jasota), 1985eko urriaren 18an onartu zuen Udalbatzarrak ordenantza hori.

Edukiontziak kalean jartzeko, arau hauek bete beharko dira:

A. Aparkatze aldeak.

Edukiontziak aparkatze aldeetan jartzeko orduan, honako lehentasunak errespetatu beharko dira:

1. Obra dagoen aldeko espaloiko aparkatokian jarriko dira.

2.Zeharkako kale hurbilenetako bateko aparkatokia.

3.Aurreko bi puntuetan azaldutako aldeetan aparkatzeko tokirik egon ezean, obra aurreko espaloiko aparkatokia jarriko dira.

4.Edukiontziaaren perimetroaren proiektzioak ezin izango ditu, inola ere, oinezkoen pasabideak edo espaloiak barruan hartu (11.A irudia).

B.Espaloiak.

Kasu hauetan edukiontzia espaloian jarriko dira:

1.A zatian aipatutako aldeetako bat ere ez dagoenean.

2.Aparkatzeko aldea egonda ere, bertan edukiontzia jartzeak ibilgailuen zirkulazioari traba handiak sortuko dizkiola uste bada.

3.Kasu guztietan, 2,50 mko tarte bat utzi behar zaie oinezkoari, edukiontziaaren goiko ertza erreferentziatzen hartuta (11 B).

4.Espaloietan jarritako edukiontzia guztiek Udalak berariaz emandako baimena izan beharko dute, Udal Ikuskaritza Zerbitzuen eskura.

Kalen jarritako edukiontzia ezin izango dira, inondik inora, materiala biltzeko erabili.

C.Alde bereziak.

Plazetan, oinezkoen aldeetan, Parte Zaharrea eta bestelako alde berezietan edukiontzia jartzeko, udal zerbitzu teknikoek kasu bakoitzerako agintzen dutena bete beharko da.

9. art.Masasiloak kalean jartzea.

Beste nonbait jarri beharra dagoela berariaz egiaztatu ezean, aparkatze aldean jarriko dira.

Kalearen parean, siloa metalez zein egur trinko egoera oneko egindako hesi batez babestuko da (egurra zerrenda bertikal zuri eta urdinez pintatuko da). Hesia 2 m garai izango da, gutxienez ere, eta ate bat eta itxitura bat izango ditu. Bete itxita egongo da, obrako langileek erabiltzeko izan ezik. Atea ezin izango da, inola ere, oinezkoen pasabide aldera ireki.

Siloak behar bezala funtzionatzeko behar dituen osagai guztiak hesi barruan kokatuko dira.

Hesiaren eta eraikinaren artean, oinezkoentzako pasabide bat utziko da, 1,50 mko zabalera gutxienez. Hala egiterik ez badago, pasabidearen zabalera espaloia izango da, baina inoiz ez 1,10 m baino gutxiagokoa.

Siloa jarri eta kentzeko eta kamioitik betetzeko maniobrak balizate konoen bidez, metalezko hesien bidez, e.a. seinaleztatuko dira eta, maniobren eraginpeko inguruan, abiadura moteltzeko eta, beharrezkoa izanez gero, galtzada estutzen dela adierazteko seinaleak jarriko dira. Maniobrek ibilgailuen zirkulazioa zailago bihurtzen badute, Trafikoko Zuzendaritzak emandako baimena beharko da.

Siloa erabili edo bete bitartean kontuz ibili beharko da oinezko zein ibilgailuei enbarazurik ez sortzeko harrotzen den hautsarekin.

III. ATALBURUA.NEURRI BABESGARRIAK ETA OSAGARRIZKO JARDUERAK

10. art.Berdeguneak eta zuhaitziak babestea.

Instalazio zein edukiontzia jarri baino lehen, neurriak hartu beharko dira zuhaitzei eta berdeguneetako bestelako osagarriei inolako kalterik ez egiteko.

Kasuan kasuko neurri bereziak alde batera utzita, honako arauak izan beharko dira kontuan berdegune zein zuhaitzaren

bat kaltea jasateko arriskuan dagoenean:

A) Ezinbestekoa ez bada (eta halakoetan ere udal zerbitzuen baimena beharko da), hesiak, aldamiok zein osagarritzko instalazioek inguratzen duten esparruaren barruan ezin izango da inolako berdegunerik, landararik edo altzaririk egon.

Halaber, edukiontziak ezin izango dira ez berdeguneetan ez zuhaitzen adaburuen proiektzioak hartzen duen esparruan jarri.

Berariazko baimena izan ezean, hesi, aldamio zein edukiontziekin zerikusia duen ezein elementuk ezin izango ditu zuhaitzak, beren txorkoak, berdeguneetako landareak edo ekipamenduosagarriak ukitu.

Berdeguneetako landareak eta ekipamendu zein elementu apaingarriak ezin izango dira lanen edo instalazioen tresna osagarri gisa erabili (ad.: Euskarri, itxitura, biltegi e.a. gisa).

Soropiletan, landaketetan, zuhaitzen inguruetan edo beren txorkoetan eta berdeguneetako ekipamendu zein elementu apaingarrietan, ezin izango da ez hondakinlikidorik ez likido kaltegarririk bota, ez eta obramaterialik, obrahondakinik, lanabesik edo edonolako tresnarik utzi ere, aldi baterako baino ez bada ere.

Oro har, berdeguneak ezin izango dira erabili haien inguruan egiten diren obretan edo jartzen diren instalazioetan baliatutako materialak, ibilgailuak edo jarduerak bertan kokatzeko.

B) Instalazioak zein edukiontziak jarri baino lehen, obren eraginpeko ingurutik edo obrako ibilgailuak ibiltzen diren zein makineria kokatzen den tokitik 2 m baino gutxiagora dauden landare eta altzari guztiak babestu beharko dira, udal teknikariek emandako jarraibideen arabera.

Lanen eraginpeko inguruaren barruan zuhaitzik egonez gero (ibilgailu eta makinaren zirkulazio eta aparkatze aldeak, materiala gordetzeko aldeak, e.a. barne), 2,5 mtik gorako hesi babesgarri bat jarriko da, zuhaitzen adaburuen proiektzioari jarraiki.

Babesgarriak enborra baino estaltzen ez badu, enborraren inguruan jarriko da, azala ukitu gabe, zauririk ez eragiteko.

Lanak amaituta, babesgarriak kenduko dira.

C) Obrak egiteko zein instalazioak jartzeko, zuhaitz, landare edo berdeguneetako ekipamenduari zuzenean eragiten dion zerbait egin behar bada, udal zerbitzu eskudunen baimena beharko da eta horren inguruan ematen dituzten jarraibide guztiak beteko. Gastuak eskatzaileen kontura joango dira.

D) Behin obrak amaituta eta behinbehineko instalazioak kenduta, arduradunei eskatuko zaie berdegunea lanak hasi baino lehen zegoen bezala uzteko, ukitutako elementuak berriz jartzeko, hondatutako gauzak konpontzeko eta lanek eragindako bestelako ondorioak leuntzeko. Horretarako epe bat emango zaie eta udal teknikariek gainbegiratu dituzte lanok.

Kasu batzuetan, osagai batzuk obrek dirauen bitartean edo behinbehineko instalazioak kendu aurretik konpontzera behartuta egongo da arduraduna.

Horrek ez du esan nahi diziplina neurriak eta kalteordain egokiak ezarriko ez direnik.

Zuhaitzei egindako kalteengatiko ordainak kalkulatzeko, «Granadako Araua»k (Herri Parke eta Lorategietako Espainiako Elkarteak, 1990) zuhaitz apaingarriak baloratzeko ezartzen duen metodoa erabiliko da.

11. art. Kalean jarritako bitarteko lagungarriak seinaleztatzea.

Kalean jarritako elementu guztiak (itxiturak, aldamiok, zamak igotzekoak, e.a.) gauez eta egunez seinaleztatuko dira.

Bai aldamioetan bai itxituretan, honako testua daramaten kartelak jarriko dira, ikusteko moduan: «Kontuz, lanak-Peligro obras», «Mesedez, ez gelditu hesiaren edo aldamioaren ondoan-No se detengan junto a la valla o andamio», «Kartelak jartzea debekatuta dago-Prohibido fijar carteles».

Gauez, argi gorriak jarriko dira obraren itxituraren zein aldamioaren kanpoko hanken bi muturretan, bai eta tartean ere, 6 mko distantzia utziz, gehienez, eta lurretik 3 mra kokatuta. Markesinarik egonez gero, argiak haien gainean ere jarriko

dira.

12. art.Muntatze eta desmuntatze aldea mugatzea.

Instalazioak jarri eta kendu bitartean, erasandako aldeak ongi mugatuta egon behar du, oinezkoen gainean ezer eror ez dadin (12. irudia).

13. art.Linea elektrikoak.

Goi tentsioko linea elektrikoren bat jarri beharreko elementutik hurbil egonez gero eta, elementu hori jartzeko orduan, aurrez fabrikatutako elementuak erabiltzean linea elektrikoa zuzenean ukitzeko arriskua egonda edo haren eraginpeko arloan sartzeko posibilitatea egonez gero, honako neurriak hartuko dira:

A) Etxe hornitzaileari linea deskargatzeko, desbideratzeko edo, beharrezkoa izanez gero, altxatzeko, eskatuko zaio, idatziz.

B) Halakorik ezin egin denean, segurtasun distantzia gutxieneko batzuk ezarriko dira, aldamiotik hurbilen dagoen tentsiodun puntutik neurtuta.

Hona hemen gutxieneko distantzia horiek:

3 m < 57.000 volteko tentsiorako.

5 m > 57.000 volteko tentsiorako.

Arauzko isolamendua ez duen behe tentsioko linea elektriko bat izanez gero:

A) Etxe hornitzaileari linea elektrikoa desbideratzeko eskatuko zaio, idatziz.

B) Hala ezin egin denean, eroaleen gainean zorro isolatzaileak jarriko dira eta isolagailuen gainean, txano isolatzaileak (13. irudia).

Nolanahi izanda ere, Goi Tentsioko Aireko Lineen Araudia eta Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa bete beharko dira.

IV. ATALBURUA.ESKABIDEEN EDUKIA

14. art.Bitarteko lagungarriak kalean jartzeko bete beharreko teknika baldintzak.

14.1. Betekizun eta erreferentziak.

Ondoren azaltzen diren elementuak jartzeko aurkeztutako eskabide guztiek legeek ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, hurrengo ataletan ageri bezala.

Araudi honen ondorioetarako, «teknikari eskuduna» esaten dugunean, industria, arkitektura edo obra zibiletako goi zein erdi mailako titulua duen norbait esan nahi dugu.

14.2. Tutu moduko aldamiok.

Tutu moduko aldamiok jartzeko, 1.627/97 eta 1.215/97 errege dekretuetan eta gaiaren inguruko gainontzeko legeetan ezarritakoa bete behar da.

Ezaugarriak eta garrantzia kontua izanda, bi muntatze mota daude, aldamiorearen altueraren (H) arabera:

A) 7 m edo gutxiagoko H.

Horrelako aldamio bat jartzeko, krokis bat eskatuko zaio jartzaileari (pintorea, igeltseroa, e.a.), fabrikatzailearen jarraibideen arabera muntatzen dela agertzen duena.

B) 7 mtik gorako H eta obra bereziak.

Kategoria honen barruan honako obrak sartzen dira: 7 m baino gehiagoko lanaltuera dutenak eta, beren egoera edo ezaugarri bereziengatik, Udalaren ustetan halakotzat jo behar direnak.

Horrelako muntatzeetan baldintza hauek bete behar dira:

Aldamiaoa jartzeko proiektua, teknikari eskudun batek sinatua eta bere lanbide elkargoak ikuskatua. Gutxienez, honakoak bildu behar ditu:

—Aurretiko bistako, sekzioko eta plantako planoak, amarraduren egoera, mota eta kopurua zehazten dituztenak

—Kalkulu memoria (eraikin berezietarako edo Udalak hala erabakitzen duenean).

—Aurrekontua.

Gomendatzen da erakunde eskudunen batek Europako HD1000 araudian oinarrituta homologatutako eta egiaztatutako aldamioak erabiltzea.

30 m baino gehiagoko altuera duten aldamioetan eta antzekoetan, derrigorrezkoa izango da aldamio horiek (HD-1000) erabiltzea, kalkulu memoria eta guzti, fabrikatzaileak altueraren arabera eskaintzen dituen aldaerak baliatuta (tutuaren lodiera, e.a.). Enpresa espezializatu batek jarri beharko ditu aldamioak.

Erabili, kontrolatu eta ikuskatu ahal izateko, aldamiora sartzeko tranpadun eskailera bat edo alboko eskailera bat egongo da.

14.3. Plataforma jasotzaile motordunak.

Plataforma jasotzaile motordunak jartzeko, 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuetan, Igogailuen Araudian, Makinen Seguritasuneko Araudian, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoan eta gai horri buruzko gainontzeko legeetan ezarritakoa bete beharko da.

Horrelako plataformak jartzeko, honakoak biltzen dituen txosten tekniko bat aurkeztu beharko da:

Plataforma espaloiarekiko eta eraikinarekiko nola kokatuko den agertzen duten planoak (aurretiko bistakoak, sekziokoak eta plantakoak), teknikari eskudun batek eginak eta bere lanbide elkargoak sinatuak. Fatxadarekiko amarraduren egoera, kopurua eta mota zehaztu beharko dituzte eta oinezko zein ibilgailuak arriskuetatik babesteko sistemak azaldu.

14.4. Aldamio esekiak.

Aldamio esekiak jartzeko 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuetan eta gaiaren inguruko gainontzeko legeetan ezarritakoa bete beharko da.

Gehieneko lanaltuera gorabehera, mota horretako aldamioak jartzeko, honakoak biltzen dituen txosten tekniko bat aurkeztu beharko da:

Aurretiko bistako, sekzioko eta plantako planoak, aldamio mota, gindolen kokapena, esekitzeko sistema, plataformen gaineko gehieneko karga, segurtasun gainkarga, kalea babesteko baliabideak, e.a. Teknikari eskudun batek egin beharko ditu eta bere lanbide elkargoak sinatu.

14.5. Materialak jaso edo jaisteko sistemak.

Dorre itxurako garabia.

Horrelako elementuak jartzeko, 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuetan, Makinen Seguritasuneko Araudian, Obretako Jasogailuen Araudian, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoan eta indarrean dauden gainontzeko legearauetan jasotakoa bete beharko da.

Bestalde, honakoak aurkeztu beharko dira:

Dorregarabia jartzeko proiektu teknikoaren kopia, teknikari eskudun batek egin eta bere lanbide elkargoak ikuskatua; garabibesoak gehienez eraman dezakeen zama, bere luzera eta eragin arloa, eta oinezkoak eta ibilgailuak babesteko hartuko diren neurriak.

Zamak igotzekoa.

Horrelako elementuak jartzeko, 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuak, Jasogailuen Araudia, Makinen Segurtasuneko Araudia, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta indarrean dauden gainontzeko legearauak bete beharko dira.

Bestalde, honakoak biltzen dituen txosten teknikoa aurkeztu beharko da:

Zamak igotzekoaren egituraren edo hagaren planoak (plantakoak, sekziokoak eta aurretiko bistakoak), teknikari eskudun batek eginak eta bere lanbide elkargoak ikuskatuak; fatxadarekiko amarraduren egoera, kopurua eta mota, eta oinezkoak eta ibilgailuak babesteko sistemak.

Materialak jaso eta jaisteko beste bitarteko batzuk.

Horrelako bitartekoak jartzeko, 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuak bete behar dira. Elikatze elektrikoa badute, Jasogailuen Araudia, Makinen Segurtasuneko Araudia, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta indarrean dauden gainontzeko legearauak ere bete beharko dira.

Jartzeko modua eta, beharrezkoa izanez gero, oinezkoak eta ibilgailuak babesteko neurriak agertzen dituzten krokisak eskatuko zaizkio jartzaileari.

14.6. Edukiontziak.

Edukiontziak jartzeko, ezartzeko modua eta, beharrezkoa izanez gero, oinezkoak babesteko neurriak agertzen dituzten krokisak eskatuko zaizkio jartzaileari.

14.7. Masasiloak.

Masasiloak jartzeko, 1.215/97 eta 1.627/97 errege dekretuak, Makinen Segurtasuneko Araudia, Behe Tentsioko Araudi Elektroteknikoa eta indarrean dauden gainontzeko legearauak bete beharko dira.

Bestalde, honakoak jasotzen dituen txosten tekniko bat aurkeztu beharko du jartzaileak: Jarri beharreko aparatua agertzen duten krokisa, hesi mota, atearen kokapena eta oinezkoen bideak izango duen zabalera.

14.8. Obrako txabolak.

Eraikin batean egiten ari den obra batean, txabolak ezin izango dira, inondik inora, kalean jarri. Urbanizazio lanak badira, edo kaleko zerbitzuak ezarri zein aldatzekoak, plantaokupazioa, kokapena eta behar diren zerbitzuak, hartuneak e.a. agertzen dituen krokis bat aurkeztu beharko da. Paisajearen duen eragina edo sor ditzakeen trabak aintzat hartuta, baimena eman edo ukatuko da, edo bestelako kokalekuak proposatuko.

14.9. Materialak metatzea.

Materiala deskargatzeko eta obra barrura eramateko behar den denboran baizik ezin izango da materiala kalean pilatu.

14.10. Garabi higikorak, hormigoi makinak, ponpa kamioiak eta antzekoak.

Trafiko Zerbitzuek eta Udaltzaingoak kasu bakoitzerako agintzen dutena bete beharko da.

V. ALTABURUA.KONTROLA ETA IKUSKAPENA

15. art.Baimendutako elementuak jarri ondorengo izapideak.

15.1. Obran ontzat ematea eta akta betetzea.

15.1.1. Tutu moduko aldamiok.

7 m baino gehiago dituztenen kasuan edo Udalak beharrezkotzat jotzen duenean, Tutu Moduko Aldamioak Ontzat Emateko Akta betetzeaz gain, enpresa jartzaileko arduradunak emandako onarpena ere ezinbestekoa izango da.

Akta horretan, batik bat, alderdi hauek egiaztatu beharko dira, 1. eranskinean ageri den ereduari jarraiki:

A) Aldamioaren muntaketa ontzat ematen dela eta kalkulu oharra aurkezten dela (eskatzen zaionean).

B) Hanka bertikalak lurrera behar bezala lotzen direla.

C) Aldamioaren atalak, oro har, egoera onean daudela; tutuak itxuragabetuta ez daudela; besarkaderek nahikoa presioa badutela eta hanka bertikalak elkarri lotuta daudela.

D) Sartzeko eskailera edo eskaileratxoak badaudela; behar bezala finkatuta daudela.

E) Plataformak: Irekidura arriskutsurik ez dutela, aldamioari behar bezala lotuta daudela eta paretaren eta aldamioaren arteko distantzia behar bezalakoa dela.

F) Aldamioaren gaineko sareak behar bezala lotuta daudela.

G) Amarradurak behar bezala jarrita daudela.

15.1.2. Plataforma jasotzaile motordunak.

Honakoek bete beharko dute Plataforma Jasotzaile Motordunak Ontzat Emateko Akta:

—Obraren arduradun zein teknikariak.

—Etxe jartzaileko arduradunak.

Akta horretan, batik bat, alderdi hauek egiaztatu beharko dira, 2 eranskinean ageri den ereduari jarraiki:

A) Plataforma planoen arabera jarri dela.

B) Hagak lurrera behar bezala lotuta daudela.

C) Plataforma jasotzailea osatzen duten elementuak, oro har, egoeran onean daudela.

D) Amarradurak behar bezala jarrita daudela.

E) Obrakoak ez diren lagunak babesteko erabilitako bitartekoak.

15.1.3. Aldamio esekiak.

Aldamio Esekiak Ontzat Emateko Akta derrigorrez bete beharko da, ondoren aipatzen ditugun alderdiak eta aldamioaren kargaren proba egiaztatu eta gero.

Honakoek sinatu behar dute akta:

—Obraren arduradun zein teknikariak.

—Aldamioa jarri duen etxeko arduradun batek.

Akta horretan, batik bat, alderdi hauek egiaztatu beharko dira, 3. eranskinean ageri den ereduari jarraiki:

A) Aldamioa planoen arabera jarri dela.

B) Hanka bertikalak lurrera behar bezala lotuta daudela.

C) Aldamia osatzen duten elementuak, oro har, egoera onean daudela.

D) Plataformak eta beren babesak.

E) Obrakoak ez diren lagunak babesteko erabilitako bitartekoak.

F) Aldamiobesoak eta beren ainguraketak.

15.1.4. Materialak igo eta jaisteko sistemak.

Dorregarabia.

Honakoek bete beharko dute Dorregarabia Ontzat Emateko Akta:

— Obraren arduradun zein teknikariak

— Etxe jartzaileko arduraduna.

Akta horretan, batik bat, alderdi hauek egiaztatu beharko dira, 4. eranskinean ageri den ereduari jarraiki:

A) Garabiaren eraginpeko arloa.

B) Hesiak eta seinaleak.

C) Oinezkoen pasagune babestua.

D) Kamioiak kargatu eta deskargatzeko lanetan erabiltzekoak diren balizatze osagaiak egotea.

Zamak igotzekoa.

Honakoek bete beharko dute Zamak igotzekoa Ontzat Emateko Akta:

— Obraren arduradun zein teknikariak.

— Etxe jartzaileko arduradun batek.

Akta hori 5. eranskineko ereduari jarraiki egingo da, batez ere, honako alderdiak kontuan hartuko direla:

A) Zamak igotzekoa planoen arabera jarrita egotea.

B) Lurrera lotzeko bermeak.

C) Zamak igotzekoa osatzen duten elementuen egoera orokorra.

D) Amarradurak ongi jarrita egotea.

E) Aldamioaren gaineko sareak finkatuta egotea.

F) Obrakoak ez diren lagunak babesteko sistemak.

Materialak jaso zein jaisteko bestelako bitartekoak.

Horrelako bitartekoek materialak jaso eta jaisteko ibilbidean hartzen duten eremua babesteko tresnek 7 m baino gehiagoko altuera dutenean, 15.1.1 zatian azaldutakoa aintzat hartu beharko da.

15.1.5. Edukiontziak.

Behin edukiontzia jartzeko baimena lortuta, ez da beharrezkoa izango ontzat ematea erabiltzen hasteko.

15.1.6. Masasiloa.

Honakoek bete beharko dute Masasiloa Ontzat Emateko Akta:

—Obra arduradun zein teknikariak.

—Etxe jartzaileko arduradun batek.

Akta horretan, batik bat, alderdi hauek egiaztatu beharko dira, 6. eranskinean ageri den ereduari jarraiki:

A)Hesiak eta seinaleak.

B)Oinezkoen pasabidearen zabalera.

C)Siloa jarri, bete eta kentzeko erabili beharreko balizatze tresnak egotea.

15.2. Aldizkako ikuskapenak.

Hamabostean behin, gutxienez, ikuskapenak egingo dira, aldordioak, plataforma jasotzaile motordunak, zamak igotzekoak, e.a. ongi daudela eta behar bezala erabiltzen direla egiaztatzeko. Ikuskapenaz arduratu den teknikariak txostena egingo du. Obraren erantzukizuna duen teknikariak, obraren arduradunak edo une hartan obran dagoen gradurik altueneko lagunak onartu beharko du txosten hori.

Irregularitasunik antzemanaz gero, udal zerbitzu eskudunari jakinaraziko zaizkio, hogeita lau ordu iragan baino lehen, zuzentzeko izapideei ekin dakien. Irregularitasunaren garrantzia dela eta, lehenbailehen zerbait egin beharra badago, Udalari ere lehenbailehen jakinaraziko zaio.

VI. ATALBURUA.LIZENTZIA ESKATZEA ETA ARAUAK BETETZEA

16. art.Elementu lagungarriak kalean jarri eta bertan mantendu ahal izateko egin beharrekoa.

16.1. Kalean egiturak, aldordioak eta bestelako bitarteko lagungarriak jartzeko, udal lizentzia beharko da, haien osagai batzuk baino jartzen ez badira ere.

16.2. Lizentzia eskuratzeko eskabidearekin batera, lizentzia ematea komeni den erabakitzeke balio duten dokumentuak ere aurkeztu beharko dira. Eskatzaileak erantzukizun zibileko aseguruaren kopia ere aurkeztu beharko du, instalazioa dela eta lagun eta ondasunei egindako kalteak, inolako diru mugarik gabe, ordaindu ahal izango dituela ziurtatzeko.

16.3. Udalak aukera izango du udal lizentziarik gabe jarritako egitura, aldordio eta lagungarri guztiak lehenbailehen kentzeko agintzeko.

Agindu hori bete ezean, obrak geldiaraziko dira eta instalazioak zigilatuko, beharrezko baimena lortu arte. Zerbitzu teknikoek egokitzen joz gero, Udalak berak kendu ahal izango ditu instalazioak.

16.4. Emandako epea iragan eta gero instalazioak oraindik kaletik kendu ez badira edo testu honetan ezarritako segurtasun neurriak betetzen ez badira, aurreko puntuan xedatutakoaren arabera jokatu ahal izango da.

Aurreko puntuetan azaldutako neurriak gorabehera, zehapenak ezarri ahal izango dira.

VII. ATALBURUA.ARAUAK HAUSTEAGATIKO XEDAPENAK

17. art.Arauk hausteak eta beren ondorioak.

17.1. Testu honetan edo osagarritzko ebazpenean jasotako arauak hausteagatiko erantzukizuna duten gizakiei zein zuzenbide izakiei zehapena jarri ahal izango zaie, otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehapen ahalmena arautzekoak, xedatzen duenaren araberrako prozedura egin eta gero.

17.2. Zehapenak jartzeko ahalmena alkateudalburuak edo haren ordezkariak izango du.

17.3. Honakoak egiten dituzten gizaki zein zuzenbide izaki guztiak izango dira arau hausteen erantzuleak: Arau urratzetzat jotzen den zerbait egiten dutenak, beren izenean zein enpresa jartzaileen ordezkari edo arduradun gisa eginda, eta, norbait araua urratzear dagoela, horretaz ohartarazteko edo araua betearazteko duten eginkizuna betetzen ez dutenak.

17.4. Honakoak arau hauste arintzat joko dira:

Pertsonen segurtasunari eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik egin ez eta bide publikoaren gainean eragin arina dutenak.

17.5. Honakoak huts larritzat joko dira:

—Arau hauek urratuz egiten diren gainontzeko ekintzak.

—Instalazioak jartzea egiturak, aldamiok eta bestelako lagungarriak jartzeko beharrezko lizentzia izan gabe.

—Udalak arau hauste arinak zuzentzeko emandako aginduak ez betetzea.

—Arau hauste arinak behin baino gehiagotan egitea.

(Hau da, urte betean bi arau hauste edo gehiago egitea).

17.6. Honakoak oso arau hauste larritzat joko dira:

—Pertsonak edo ondasun publiko zein pribatuak arriskuan edo egoera larri batean jartzen dituen arau hauste larri bat egitea.

—Udalak arau hauste larriak zuzentzeko emandako aginduak ez betetzea.

—Arau larriak behin baino gehiagotan egitea.

(Hau da, urte berean bi arau hauste edo gehiago egitea).

17.7. Honako zehapenak ezarriko dira:

a) Arau hauste arinak:

—Ohartarazpena

—10.000 pta arteko isuna.

b) Arau hauste larriak:

—10.001etik 75.000 pta arteko isuna.

c) Oso arau hauste larriak:

—75.001etik 150.000 pta arteko isuna.

Isuna zenbatekoa izango den erabakitzeko, aintzat hartuko da zenbat egunetan iraun duen arau hausteak.

Arau haustea larria edo oso larria denean, lizentziarik gabe kalean jarritako elementuak berehala kentzeko agindua emango da eta, arduradunak kendu ezean, Udalak kenduko ditu.

Horietaz guztietaz gain, elementuen egoera dela eta beharrezkoa bada, kautelazko neurri egokiak hartuko dira.

17.8. Zehapenak udal agintariek ezarriko dituzte, inguruabarrak kontuan izanda eta arau hausteak berekin ekar ditzakeen erantzukizun penalak zein eman beharreko kalteordainak gorabehera.

Azken xedapenak.

Lehenengoa. Araudi honetako xedapenak Donostiako udalerrian bete beharko dira eta Udalak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik hogeita hamar egunera hartuko dute indarra.

Bigarrena. Araudi hau betearazteko, alkateak beharrezko ebazpenak emango ditu, araudiko xedapenak betetzen direla ziurtatzearen eta bere edukia ahalik eta gehien zehaztearren.

Hirugarrena. Indarrean sartu eta urtebete iraganda, Hiri Mantenimendu eta Zerbitzuetako Arloak, arauak betearazi diren denboran lortutako esperientzian oinarrituta, Araudia hobetzeko egin beharreko aldaketak proposatuko dizkio Udaltzarrari, izapide egokiak egin daitezen.

I. Eranskina / Anexo 1

| | |
|---|-----------------------------------|
| OBRA / OBRA | |
| | |
| EMPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA | |
| | |
| KOKAPENA / SITUACION | |
| | |
| ALDAMIOAREN M ² / M ² ANDAMIO | |
| | |
| ALDAMIO MOTA / TIPO DE ANDAMIO | |
| | |
| BALDINTZAK / CONDICIONES | |
| | |
| 1. PLANOAK / PLANOS | |
| Aldamioa zk.ko planoaren arabera jarri da (planoa)(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa). / El andamio ha qu instalado conforme al plano n° de adjunto. | |
| 2. AINGURATZEAK / ANCLAJES | |
| Eraikineko puntutan ainguratuta gelditu da. / Ha quedado anclado en puntos del inmueble. | |
| 3. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS | |
| Hesiak / Vallado | Aldamioaren estalkia: olana |
| Markesina babesgarria / Marquesina de protección | Cubrimiento del andamio: con lona |
| Seinaleak / Señalización | sarea / con red |
| | estali gabea / sin cubrir |
| 4. KARGA ONARGARRIAK / CARGAS ADMISIBLES | |
| Erabilera karga kg/m ² koa da, plataformaren gainean, gehienez ere. / La carga de utilización es de Kgs/m ² sobre plataformas, como máximo. | |
| 5. OHARRAK / OBSERVACIONES | |
| | |

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko /
Firman de conformidad este acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA / INSTALAZIOAREN ARDURADUNA
TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA / SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

Eguna/Fecha:

2. Eranskina / Anexo 2

| |
|--|
| OBRA / OBRA |
| ENPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA |
| KOKAPENA / SITUACION |
| PLATAFORMAREN LUZERA / LONGITUD DE LA PLATAFORMA |
| GEHIENeko LAN ALTUERA / ALTURA MAXIMA DE TRABAJO |
| BALDINTZAK / CONDICIONES |
| 1. PLANOAK / PLANOS |

| | |
|---|---|
| Plataforma jasotzaile motorduna zk. ko planoaren arabera jarri da (planoa(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa). / La plata elevadora motorizada ha quedado instalada conforme al plano n° de adjunto. | |
| 2. AINGURATZEAK / ANCLAJES | |
| Eraikineko puntutan inguratuta gelditu da. / Ha quedado anclada en puntos del inmueble. | |
| 3. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS | |
| | Hesiak / Vallado |
| | Markesina babesgarria / Marquesina de protección |
| | Sareak edo antzeko sistemak (nolakoak diren adierazi) / Redes o sistemas similares, a describir |
| | Seinaleak / Señalización |
| 4. KARGA ONARGARRIAK / CARGAS ADMISIBLES | |
| Plataformaren erabilera kargakg/m ² koa da. / La carga de utilización de la plataforma es de Kgs/m ² . | |
| 5. OHARRAK / OBSERVACIONES | |
| | |

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko. / Firman de conformidad este Acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA / INSTALAZIOAREN ARDURADUNA
TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA
SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

3. Eranskina / Anexo 3

| | |
|--|---|
| OBRA / OBRA | |
| ENPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA | |
| KOKAPENA / SITUACION | |
| BALDINTZAK / CONDICIONES | |
| 1. PLANOAK / PLANOS | |
| Aldamioa zk.ko planoaren arabera jarri da (planoa(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa). / El anda quedado instalado conforme al plano nº de adjunto. | |
| 2. ESEKITZEKO SISTEMA / SISTEMA DE CUELGUE | |
| Aldamioa honako haueetatik esekita dago / El andamio queda colgado de: | teilategaleko gakoetatik / ganchos en alero |
| | ainguratutako besoetatik / pescantes anclados |
| | beso kontrapisudunetatik / pescantes contrapesados |
| | besterik / otros |
| 3. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS | |
| | Hesiak / Vallado |
| | Markesina babesgarriak / Marquesina de protección |
| | Sareak edo antzeko sistemak (nolakoak diren adierazi) / Redes o sistemas similares, a describir |
| | Seinaleak / Señalización |
| 4. KARGA ONARGARRIAK / CARGAS ADMISIBLES | |
| Plataformaren erabilera karga kg/m ² koa da,plataformaren gainean. / La carga de utilización de la plataforma es de Kgs sobre plataformas | |
| 5. OHARRAK / OBSERVACIONES | |
| | |

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko / Firman de conformidad este Acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA / INSTALAZIOAREN ARDURADUNA /
TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA / SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

Eguna/Fecha:

4. Eranskina / Anexo 4

| |
|---|
| OBRA / OBRA |
| ENPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA |
| KOKAPENA / SITUACION |
| BALDINTZAK / CONDICIONES |
| 1. PLANOAK / PLANOS |
| Dorregarabia zk.ko planoaren arabera jarri da (planoa(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa).. / La grúa quedado instalada conforme al plano nº de adjunto. |
| 2. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS |
| Hesiak / Vallado |
| Seinaleak / Señalización |
| Zama lanak balizatze osagaiak / Existencia de elementos para balizamiento en operaciones de carga y descarga |
| Oinezkoentzako pasagune babestua / Paso protegido para peatones |
| 3. GEHIENEN KARGA / CARGA MAXIMA |
| Puntan kgko karga eraman dezake, gehienez. / La carga máxima en punta es de Kgs. |

4. GARABIBESOAREN LUZERA / LONGITUD DE LA PLUMA

Garabi besoa m luze da. / La longitud de la pluma es de m.

5. OHARRAK / OBSERVACIONES

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko / Firman de conformidad este acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA INSTALAZIOAREN ARDURADUNA
TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA / SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

Eguna/Fecha:

| | |
|--|--|
| OBRA / OBRA | |
| | |
| ENPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA | |
| | |
| KOKAPENA / SITUACION | |
| | |
| BALDINTZAK / CONDICIONES | |
| 1. PLANOAK / PLANOS | |
| Zamak igotzekoa zk.ko planoaren arabera jarri da (planoa(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa). / El montac quedado instalado conforme al plano nº de adjunto. | |
| 2. AINGURATZEAK / ANCLAJES | |
| Eraikineko puntutan ainguratuta gelditu da. / Ha quedado anclado en puntos del inmueble. | |
| 3. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS | |
| Hesiak / Vallado | Aldamioaren estalkia: olana Cubrimiento del andamio: con lona |
| Markesina babesgarria / Marquesina de protección | sarea / con red |
| Seinaleak / Señalización | |
| 4. GEHIENEO KARGA / CARGA MAXIMA | |
| Zamak igotzekoaren gehieneko erabilera karga kgkoa da. / La carga máxima de utilización del montacargas es de Kgs. | |
| 5. OHARRAK / OBSERVACIONES | |
| | |

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko /
Firman de conformidad este acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an .

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA INSTALAZIOAREN ARDURADUNA

TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA / SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

Eguna/Fecha:

6. Eranskina / Anexo 6

| | |
|---|--|
| OBRA / OBRA | |
| | |
| ENPRESA ERAIKITZAILEA / EMPRESA CONSTRUCTORA | |
| | |
| KOKAPENA / SITUACION | |
| | |
| BALDINTZAK / CONDICIONES | |
| 1. PLANOAK / PLANOS | |
| Masasiloa zk.ko planoaren arabera jarri da (planoa(e)k idatzi du eta akta honi erantsita doa). / El silo ha q instalado conforme al plano nº de adjunto. | |
| 2. BESTEAK BABESTEKO NEURRIAK / PROTECCION A TERCEROS | |
| | Hesiak / Vallado |
| | Seinaleak / Señalización |
| | Oinezkoentzako pasabidearen zabalera / Anchura de paso peatonal |
| | Siloa jarri, bete eta kentzeko lanak balizatzeko osagaiak / Existencia de elementos para balizamiento en operaciones de colocación, llenado y r del silo. |
| 3. OHARRAK / OBSERVACIONES | |
| | |

Behean ageri direnek akta hau sinatzen dute, bertan jasotakoa egia dela adierazteko / Firman de conformidad este acta:

Donostia, 2.....(e)koren(e)an

OBRAKO TEKNIKARIA EDO ARDURADUNA INSTALAZIOAREN ARDURADUNA
TECNICO O RESPONSABLE DE OBRA RESPONSABLE INSTALADOR

Iz./Fdo.: Iz./Fdo.:

KONTROL ETA IKUSKARITZA ZERBITZUA / SERVICIO DE CONTROL E INSPECCION

Iz./Fdo.:

Eguna/Fecha:

7. Eranskina

DONOSTIAKO KALEETAN EDUKINONTZIAK
JARTZEA ARAUTZEKO ORDENANTZA
1985EKO URRIAREN 18AN EGINDAKO
OSOKO BILKURAN ONARTUA

1. art. Ordenantzaren helburua.

Ordenantza honen helburua Donostiako kaleetan edukinontziak jarri eta kaleen aprobetxamendu berezia arautzea da, eta baita Udalak edukinontzia jartzeko lizentzia edo baimena emateko bete behar diren baldintzak izendatzea ere.

2. art. Udalaren baimena behar izatea.

Edukinontzia kalean jarri nahi duen pertsonak nahiz enpresak, dela obretako zaborrak botatzeko, dela beste material batzuk edukitzeko, baimena eskatu behar dio, derrigor, Udalari.

3. art. Zer agiri aurkeztu behar den.

Edukinontzia jarri nahi duenak eskabidea aurkeztu behar du Udalaren Erregistro Nagusian. Eskabidea Donostiako alkateari zuzendu behar zaio, eta, baimena eskatzeaz gainera, eskabidea egin duen pertsona edo enpresa identifikatzeko behar diren datu guztiak adierazi behar dira.

Eskatzaileak, aseguru poliza bat ere aurkeztu behar du. Polizak egunean egon behar du, edukinontziak direla-eta besteri egindako kalte edo min hartze guztiak tapatu behar ditu eta espaloi, zoru nahiz kaleko altzariei egindako kalteak ere estali behar ditu. Alde horretatik, Udalak badauka eskubidea eskatzaileak poliza egunean duelakoa erakusten duen agiria eskatzeko, eta, hala, aseguru sariak ordainduta izatea erakusteko ordainagiriak ekarraraziko dizkio. Gutxienez edukinontzia jartzeko baimenak irauten duen bitartean behintzat indarrean izan behar du polizak.

4. art.

Ordenantza honek arautzen dituen baimenak diren bezalakoak izanik, baimena eman duen organoak badu eskubidea baimena noiznahi bertan behera uzteko ere. Halakoetan, segituan kendu behar du edukinontzia kaletik baimenaren titularrak. Hark kendu ezean, Administrazioak berak kenduko du, baina, kendu behar zuenaren kontura izango dira edukinontzia kendu eta gordetzeak sortutako gastuak. Gainera, horrek ez du esanahi arau-hauste horri dagokion zigorrik izango ez denik.

5. art.

Baimenaren titularrak derrigorrez adierazi behar dio Udalari, baldin eta Udalak eskatuz gero behintzat, edukinontziaren erabiltzailea identifikatu eta aurkitzeko behar diren datu guztiak.

6. art. Edukinontziak bete behar dituen baldintzak.

1. Hauek dira baimenaren titularrak edukinontzien erabileraren gainean bete behar dituen baldintzak:

a) Pintura islatzailea emanda izan behar du edukinontziak, ondo ikus dadin, eta zenbaki bat ere izan behar du, edukinontzia identifikatzeko bidea izateko.

b) Edukinontzia jartzeko orduan, garbitu egin behar da kalean egon daitekeen edozein zaborra edo hondar.

c) Edukinontziak ondo kasu eginda egon behar du beti, batez ere kanpoko aldetik. Hala, galarazita dago baldintza hau betetzen ez duen edukinontzia kalean jartzea.

2. Hauek dira edukinontzia alokatzen edo erabiltzen duenak edukinontzien erabileraren gainean bete behar dituen baldintzak:

a) Zeharretara tabloi batzuk bota eta lurrik ukitzen ez duela egon behar du edukinontziak.

b) Laneko orduetatik kanpora, ondo tapatuta egon behar du edukinontziak, eta ez dago aldamenek agintzen duten marra baino gehiago betetzerik.

7. art. Edukinontziak jarri eta garraiatzeko baldintzak.

Arauetan nahiz alkatearen Bandoetan hiriko zirkulazioaz agindutakoaren baitan izango dira beti edukinontziak jartzeko baimenak, eta arau edo bando horietan agindutakoa betetzen ez duenari, tokatzen zaion zigorra jarriko zaio.

1. Hauek dira baimenaren titularrak edukinontzia garraiatzeko orduan bete behar dituen baldintzak:

a) Larunbat eguerdiko ordu bietatik astelehen goizeko 7etara eta jai bezperako iluntzeko 8etatik hurrengo laneguneko goizeko 7etara ez dago edukinontzirik edukitzerik kalean, eta, beraz, ordurako kendu egin behar du edukinontzia kaletik baimenaren titularrak.

b) Titularrak kentzen ez badu, Udalak badu haren tokian kentzeko eskubidea, baina, kendu behar zuenaren kontura izango dira edukinontzia kendu eta gordetzeak sortutako gastuak. Gainera, horrek ez du esanahi arau-hauste horri dagokion zigorrak izango ez denik.

2. Edukinontzia erabili edo alokatzen duenari dagokio baldintza hau betetzea: Egun guztian nahiz ordu batzuetan ibilgailuak uztea galarazita dagoen tokian ez dago edukinontzirik jartzerik.

3. Udalak badauka eskubidea, baldin eta hiriko zirkulazioa ondo ibiltzeko hala behar dela iruditzen bazaio, aldi eta toki batzuetan edukinontziak jartzea eta kentzea ordu jakin batzuetan eginarazteko. Ordu horiek ere Udalak berak izendatuko ditu.

8. art. Kontrola.

Edukinontzia jartzeko baimena duten titular guztiek hiru hilean behin jakinarazi behar diote Udalari zenbat edukinontzi ibili dituzten denbora horretan, zer kaletan izan diren eta zenbat egunean.

Udalak badauka eskubidea informazio hori egiazkoa den ikusteko behar diren konparazioak egiteko nahiz datuak biltzeko, eta baita egiazkoa ez bada zigorra jartzeko ere.

9. art. Arau-Hausteak.

Ordenantza honek agintzen duen baimenik izan gabe jarriz gero edukinontzia kalean, edo hemen agindutako gainerako baldintzak bete ezean, hemen behean adierazitako arau-hauste mota hauen arabera tokatzen den zigorra jarriko du alkateak. Arau-hausteak:

a) Arinak, larriak edo oso larriak izango dira arau-hausteak.

b) Arau-hauste oso larriak:

1. Ordenantza honetako 2. artikuluan agindutako baimenik izan gabe jartzea edukinontzia kalean.

2. Hirugarren artikuluan esandako aseguru poliza egunean ez edukitzea.

3. Edukinontzia darabilenaren izenik eta helbiderik ez ematea.

4. Behin baino gehiagotan egitea arau-hauste larriak.

c) Arau-hauste larriak:

1. Larunbat eguerdiko ordu bietatik astelehen goizeko 7etara eta jai bezpera iluntzeko 8etatik hurrengo laneguneko goizeko 7etara kalean edukitzea edukinontzia.

2. Udalak adierazitako orduetan ez kentzea edukinontzirik 7. artikuluko 3. puntuan adierazitako kasuetan.

3. Ibilgailuak egun guztian nahiz ordu batzuetan uztea galarazitako tokian jartzea edukinontzia, hartarako baimen berezirik izan gabe.

4. Espaloietan edo antzeko tokietan jartzea edukinontzia.

5. Lurraren eta edukinontziaren artean ezer ere jarri bate jartzea edukinontzia.

6. Edukinontzia ez tapatzea laneko orduetatik kanpora.

7.Kartola edo aldamera baino gehiago betetzea zaborraz edo hondakinez edukinontzia.

8.Behin baino gehiagotan egitea arau-hauste arinak.

d)Arau-hauste arinak:

1.Batere pintura islatzailerik eman gabe edukitzea edukinontzia.

2.Identifikazio zenbakirik ez izatea.

3.Lurrean hondakinak izatea edukinontziak jartzeko orduan.

4.Kontrol neurrien artean adierazitako jakinarazi beharra (ikus 8. artikulua) ez betetzea.

10. art. Zigorrak.

Arau-hauste horiek eginez gero, zigor hauek jarriko ditu alkateak:

a)Arau-hauste oso larria izanez gero: 10.000 pta. bitartekoa.

b)Arau-hauste larria izanez gero: 5.000 pta. bitartekoa.

c)Arau-hauste arina izanez gero: 1.000 pta. bitartekoa.

11. art. Eskubideak eta tasak.

Edukinontziak jarri eta kalea erabiltze berezi honek eskubideak eta tasak eranstea dakar. Eskubide eta tasa horien gaineko araudia ordenantza fiskal baten bidez jarriko da.

1985eko urriaren 18an onartua behin betiko Udaltzarak, nahiz eta 10. artikulua aldatuta, zigorrak handitzea erabaki baitzuen (15.000 pta. bitartekoak izatea a) hizkian adierazitakoak; eta dagokion proportzioan handitzea b) eta c) hizkietakoak), legeak eskatzen duen gehiengo osoa errespetatuta, guztia ere, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 47.3.I) artikuluan agintzen duen eran.

IRUDIAK





